

# Gazte bat hil da istripuz Villaverde Turtziozen.

Testua irakurri eta ondorengo galderei erantzun.

D.L.F. 15 urteko gaztea hil zen atzo goizean Villaverde Turtzioz Kantabriako herrian izandako ziklomotor istripu baten ondorioz. Istripua BI-2617 errepidean gertatu zen, gauerdiko hamabi eta erdietan. Villaverde Turtzioz aldera zihoan, eta gaztea errepidetik irten zen, ziklomotorraren kontrola galdu ondoren. Ondorioz, oso larri zauritu zen gaztea, eta Gurutzetako ospitalera eraman zuten. Ospitalera heldu eta denbora gutxira hil zen D.L.F. gaztea.

1. Zer gertatu zen?
2. Nor da berriaren protagonista?
3. Noiz gertatu zen?
4. Non gertatu zen?
5. Zergatik gertatu zen?

**ERANTZUNAK;** 1. Gazte bat hil zen.  
2. 15 urteko gazte bat.  
3. Atzo goizean.  
4. Villaverde Turtziozen.  
5. Ziklomotorraren kontrola galdu zuelako.